

## **ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO BIZTANLE DENTSITATE TXIKIKO EREMUAK EDO LANDA EREMUAK ZEHAZTEKO PROIEKTUA ONARTZEA.**

Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeak zerbitzu horien araubide juridikoa ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan, erkidegoan sortu diren beharrezanetarako egokia den erregulazioa ematen dio sektoreari, lege-testu bakarrean bateratzen du aurretik hainbat testutan sakabanatuta zegoen arautegia, eta, horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 10.32 artikuluan ematen duen eskumen eskusiboa garatzen da.

Legeko I. eta II. kapituluetan aplikazio eremua eta eskumen araubidea ezartzen dira. Gainera, adierazten da legearen xedea Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan turismo ibilgailuetan egiten diren bidaiarien herri barruko eta herri arteko garraio publikoko zerbitzuak arautzea dela.

Eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen, lurralde historikoetako foru organoen eta udalen artean banatzeari dagokionez, azaroaren 25eko 27/1983 Legea errespetatzen da (Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremani buruzko Legea), bai eta lege hori hizpide ditugun egitekoak eta zerbitzuak eskualdatzeari dagokionez garatzen duten arautegiak ere bai.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eskumenekoak dira lege honen xede diren garraioen arloko legegintza, arauen bidezko garapena, ikuskaritza gorena, plangintza eta koordinazioa; lurralde historikoetako foru organoen eskumenekoak dira herri arteko garraiorako baimenak ematea eta kentzea (bakoitzak bere lurraldearen barruan), Legeak hirugarren artikuluan arautzen duen bezala, turismo ibilgailuetan egiten den bidaiarien herri arteko garraioa ikuskatzeko eta zehatzeko ahalmenak, bai eta, besteak beste, zerbitzu espezializatuetan biztanle dentsitate txikiko eremuak edo landa eremuak zein diren zehazteko ahalmena ere.

2/2000 Legeak eta urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak (Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legea garatzen duen arautegia onartzen duenak) honela definitzen dituzte zerbitzu espezializatuak: ohikoak ez beste ibilgailu edota gidari batzuk behar diren zerbitzuak edo ezaugarri bereziko zerbitzuak. Horren ildotik, 243/2002 Dekretuak 51.1.d) artikuluan ezartzen du biztanle dentsitate txikiko eremuetako edo landa eremuetako garraio zerbitzuak zerbitzu espezializatuak direla, besteak beste.

Hori dela eta, 243/2002 Dekretuko 56.1 artikuluan honela zehazten da zein den biztanle dentsitate txikiko eremuetan edo landa eremuetan bidaiariak turismo ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzu publikoaren helburua: *«bata bestearengandik aldendurik dauden herriak elkarren artean hurbiltzea eta herri horiek garraio konbentzionala eskaintzen duten herriekin lotzea; bai eta, batetik bestera joateko zailtasun bereziak dituzten taldeei arreta eskaintzea eta beste gizarte-zerbitzu batzuekin koordinatzea.»*

Eta hauxe gehitzen da paragrafo berean: *«Foru aldundiek erabakiko dute bere lurraldeetan zein inguru jo populazio-dentsitate baxukotzat edo landa-eremutzat, eta horretarako bizilagunen kopurua eta banaketa geografikoa hartuko dituzte irizpidetzat.»*

Hori guztia kontuan hartuta, aipatutako araudia garatu nahian eta Arabako Lurralde Historikoko biztanle dentsitate txikiko eremuetako edo landa eremuetako herri barruko eta herri arteko bidaiariak turismo ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzu publikoa hobetzeko eta hedatzeko asmoarekin, eta ohartuta Arabako udalerrien artean nolako elkarreraginak gertatzen diren eta udalerrri askotan biztanle gutxi daudela, Arabako Foru Aldundiak uste du landa eremuak zehaztu

behar direla biztanle kopuruak eta banaketa geografikoaren inguruko ondorengo irizpideak aintzat hartuz:

Arabako Lurralde Historikoa zazpi kuadrillatan banatuta dago, eta haietatik Gasteizko Kuadrillan biltzen dira probintziako biztanle gehienak (guztizko biztanleriaren % 75 inguru); kuadrilla hori bat dator udalerriarekin berarekin.

Arabako gainerako sei kuadrillak (Añana, Kanpezu-Arabako Mendialdea, Agurain, Zuia, Guardia-Arabako Errioxa eta Aiara) zerbitzu bateratua eskainiko duten area gisa zehaztu ziren uztailaren 29ko 79/2008 Foru Dekretuan, eta horrek ahalbidetzen du taxiek eskualde osoan egitea zerbitzua, udalerrira mugatu beharrean. Bi arrazoi nagusi daude horretarako:

- Udalerrri gehienetan, biztanle gutxi dituztenez, ez dago bertako taxi baimenik, eta kuadrillako udalerrri handigoetako taxi baimenduetara jo beharra dute.
- Biztanle kopuruaren arrazoi hori bera dela eta, udalerrri gehienetan ez dago funtsezko zerbitzu publikorik. Funtsezkoak diren oinarritzko zerbitzuak erabiltzeko (osasuna, hezkuntza, saltokiak), batzuetan, erabiltzaileek udalerritik kanpora joan behar izaten dute, kuadrillako beste herrigune nagusi batzuetara.

Sei kuadrilla horiek landa izaera handia dute, bi aldagai hauek direla eta:

- Dentsitate txikia (biztanleria/azalera), Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako eskualdeek baino askoz txikiagoa:
  - Dentsitate txikia dute kuadrilla guztiek, baina muturrekoa da Añanan eta Kanpezu-Arabako Mendialdean.
- Sakabanatze handia (biztanlegune kopurua / biztanleria).
  - Alderatzuz gero, Arabako Errioxako Kuadrillan sakabanaketa txikiagoa da, gune handi samarretan bilduta dagoelako biztanleria.
  - Añana, Kanpezu-Arabako Mendialdea eta Aguraingo kuadrilletan eta Zuiako Kuadrillaren zatirik handienean sakabanaketa ertaina da.
  - Kantauriko isurialdean (Aiarako Kuadrilla eta Aramaioko udalerria, Zuiako Kuadrillan), biztanleguneak sakabanatuta egoteaz gain, haietako asko “barreiatuta” ere badaude, hau da, herriguneetan multzokatu gabe.
- ❖ Kuadrilletan badira herrigune handi samar batzuk, zeinek hiri ezaugarriak izanik kuadrillak artikulatzen baitituzte, eta haietan biltzen dira taxi baimen gehienak; hona hemen:
  - Aiara: Laudio, Amurrio eta Artziniega.

- Zuia: Legutio, Murgia eta Izarra.
  - Añana: Langraiz Oka.
  - Agurain: Agurain eta Dulantzi.
  - Guardia - Arabako Errioxa: Oion, Guardia eta Bastida.
- ❖ Automobiletan egiten den bidaiarien herri arteko garraio publikorako gehieneko baimen kopurua ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren 2005eko otsailaren 11ko Aginduak 10.000 biztanleko atalase kualitatiboa ezartzen du, eta hain zuzen Laudio eta Amurrioko udalerriek bakarrik gainditzen dute biztanle kopuru hori. Bi udalerrri horietan bakarrik esan daiteke taxi zerbitzuaren eskaintza zabal eta lehiakorra dagoela.
  - ❖ Gainerako udalerrietan, taxi eskaintza txikia da eta, askotan, ez ditu behar bezala betetzen herritarren beharrianak.

243/2002 Dekretuak hauxe ezartzen du 56. artikuluko bigarren zenbakian: *“Populazio-dentsitate baxuko inguruetan eta landa-eremuetan, zerbitzu bereziturik eskaintzen ez bada edo eta bidaiariak kotxez garraiatzeko lizentziak eta baimenak dituztenei zerbitzu hori ematea interesatzen ez bazaie, posible izango da, lanbidez garraiolaria ez den eta Erregelamendu honetan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ez dituen norbaiti ematea horretarako baimena”*. Horrek aukera ematen du zerbitzu publiko hori ezartzeko Arabako Lurralde Historikoko eremu horietan.

Kontuan hartu dira irizpide hauek, baita Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren Legearen arautegia onartu duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuak 56.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera foru aldundiek esleitura duten ahalmena.

Irizpide horiek aintzat hartuta, egokiena da Arabako Lurralde Historikoko biztanle dentsitate txikiko eremutzat edo landa eremutzat jotzea honako hauek:

- Bi baimen baino gehiago ez dituzten udalerrriak.
- Halaber, Arabako kuadrillak (uztailaren 29ko 79/2008 Foru Dekretuan ezartzen diren taxi zerbitzua emateko lurraldeekin bat datozenak) landa eremutzat joko dira honako kasu honetan: kuadrillako baimenak bertako udalerrien kopurua biz biderkatzearen emaitza baino gehiago ez direnean.